

Mugaldean

MIKEL SOTO

Mugako argialetxea

Txalapartan sarritan esan ohi dugu mugaldeko argialetxea garena. Euskararen zoritxarreko muga geografikoan dago argialetxea, Tafallan; gure argitalpen-ildoan muga ideologikoan ibiltzen da maiz; herrialdeen eta literaturen mugak gaindituta, munduko bazter ezkutu askotatik ekarri ditugu idazleak eta idazlanak Euskal Herrira eta, munduan zehar, Euskal Herriaren kanpo muga izan da Txalaparta atzerriko irakurle eta argialetxe ugariarentzat.

Mugaren aldeetan, sarri, itzultzaileak behar dira, batetik bestera ibiltzeko, komunikatzeko, eta horretaz aurki konturatu ziren Txalaparta eraikitzeari ekin zioten lagunak. Argialetxearen bilduma gehienak itzulpenaren bidez hasi izan dira. Orreaga sailaren lehen liburua Luigi Bruni italiarraren *ETA: Historia política de una lucha armada* izan zen; Amaiur bilduman, Bobby Sands irlandarraren liburua izan zen lehena, *Egun bat nire bizitzan*; Axuri Beltza bildu-

maren hastapeneko liburua Carlos Ocampo mexikarraren *Kondorea pasatzen ikusten baduzu* izan zen, eta abar eta abar.

Euskal Herrian itzulpen gehien egin dituen argialetxeetako bat da Txalaparta; euskaraz zein gaztelaniaz. Mundu osoko eta hainbat garai eta generotako idazle eza-gunak eta ezezagunak itzulpenaren bidez batu dira gure katalogoan: Artur Pestana *Pepetela*, Sun Tzu, Mia Couto, Ngugi Wa Tiong'o, Pramoedya Ananta Toer, Gerry Adams, Zhang Yie, Noam Chomsky, Salwa Bakr, Yasar Kemal, Mumia Abu-Jamal, Malika Mokkedem, Fidel Castro, Lev Tolstoi, Eduardo Galeano, X.L. Méndez Ferrín, Osamu Dazai, James Petras, Julio Cortazar, Brendan Behan, Marcos komandanteordea, Charles Bukowsky, Denis S. Miles, Nelson Mandela, John Steinbeck, Jamaica Kincaid, Nagib Mahfuz, Rubem Fonseca, Irene Nemirovsky... zerrenda, bidegabea izateaz gain, amaigabea da.

Sarritan, itzulpenak eman digu modua atzerriko idazleek Euskal Herriari eta eus-

kaldunoi buruz erdaretan idatzi dituztenak hemen eta munduan ezagutarazteko. Mugaren beste aldean baina gugandik hurbil zeuden idazle ugariaren lanak ekarri ditugu: Luigi Bruni, Giovanni Giacomuzzi, Paul Henri Capdeville, Patrick Cassan, Johannes Urzidil, Gaetan Bernoville, Rui Pereira, George L. Steer, Eoin O'Broin, Pierre Lancre, Gilles Perrault, Raul Zelik...

Zoritxarrez, errazagoa izan da atzerritarak etxeratzea etxekoak munduratzeari baino: kanpora nahi baino gutxiago itzuli gaituzte eta, hala ere, urteen poderioz, urrats txikitxoak egin dituzte gure liburuek beste hizkuntzetan. Laura Mintegiren *Nerea eta biok* ingelesez, Edorta Jimenezen *Baleen barbaroa* italieraz, Luis Nuñezen *La razón vasca* katalanez eta italieraz, Iñaki de Juanaren *Egunak* grezieraz, Alfonso Etxegarairen *Regresar a Sara* italieraz, Iñaki Egañaren *Mil noticias insólitas del país de los vascos* frantsesez, Fernando Alonsoren *¿Por qué luchamos los vascos?* katalanez, Lucio Urtubiaren *La revolución por el tejado* alemanez, Iker Casanova eta Paul Asensioren *Argala* italieraz... Eta, zorionez, beste itzulpen batzuk dauzkagu bidean zain, adibidez, Laura Mintegiren *Ecce homo* alemanez argitaratuko dute aurki, edo eta egile beraren *Sisifo maiteminez* nederlanderaz.

Apal baina pozik diogu gure ustez mugari lan duina egin dugula; gure herria aberastu dugula baterako eta besterako literatura-estraperlo horren bidez.

Itzultzearen plazeraz

Argialetxe txiki guztietan bezala, denetarik egitea tokatzen zaidan arren, nire edi-

tore lan nagusian, euskarazko bildumen arduradun gisa, beste herrialdeetako lankideek ez dauzkaten hainbat plazer eta abantaila dauzkat; Euskal Herriko beste editore askok bezala, esango nuke. Ia dena dago euskarara ekartzeko. Gaur egun mundu osoko liburu dendetan dauden idazle garaiak eta puntakoenen artean ia edozein hauta dezakegu euskaratzeko: John Irving, Paul Auster, Hanif Kureishi, Albert Sánchez Piñol... Horrez gain, literatura unibertsaleko edozein klasiko daukagu eskura gurera ekartzeko; Donatien Sade, J.R.R. Tolkien, Oscar Wilde... Azkenik, gurean ezezagunak izanagatik ere apartak diren idazleak ere hor dauzkagu, zain: François Xenakis, Ellen Kuzwayo, Germano Almeida, João Ubaldo Ribeiro eta beste hainbat. Txalapartaren ibilbidearen parte diren itzulpen horiek guztiak ikaragarri gozatu ditut, irakurle eta editore gisa.

Ez da kontu ederra itzulpen bat bestearen gainetik jartzea baina, itzultzaileen artean egonik, adibide honekin erraz ulertuko dituzuelakoan nago plazeraren gozatu zenbatekoa izan litekeen. George Orwellen *1984* liburua editatzea izan da lanean gertatu zaidan gauzarik ederrenetakoa. Poztasun nerabez ekin nion Oskar Aranak egindako itzulpenari, ni zoriontsu egiteko baldintza guztiak zeuzkalako: nire liburu kuttunetakoa da *1984*; Oskarrek egindako itzulpena itzela zen; ingeles apur bat badakit; bilbearen ezinbesteko osagaia da lengoaia, hizketa berria... Testuekin gozatu eta sufritu duzenok aise ikusiko duzue editore baten tizat horrelako lan bat zer-nolako miraria izan daitekeen.

Argitaraturik aurkitu ditugun gure liburuak

Argitaletxe baten bizitzan itzulpengintzak badu alde eraikitzaile ukaezina. Argitaletxearen adierazpena den katalogoa zure neurrira eraikitzeko aukera ematen dizu. Zure literatur esparruan ez dauden baina egotea nahiko zenukeen lanak zurerara ekarri ahal izatea, munduari egindako oihua da.

Txalpartaren mugaldea lerro eta angelu zuzenez marraztu nahi izan dutenen aurrean, gure katalogoa haizatu izan dugu beti bandera erraldoi eta koloretsu gisa. Apurka-apurka eta konturatzeke, katalogo askotarikoa osatu dugu eta, aitortzea barregarria den arren, inguruko lagunak ohartu ziren horretaz gu ohartu aurretik. Adibide soil gisa, Argentinako Capital Intellectual argitaletxeak *Narradoras de orillas lejanas* bildumari ekin nahi izan zionean, Txalpartaren katalogoan zeuden emakumeekin osatu zuen bilduma osoa.

Euskal Herrian egiten dugun bezala, zapalduak, bazterreko ahotsak, heterodoxoak, borrokalariak, berritzaileak nahi izan ditugulako Txalpartan, eta itzulpena horretarako aliatu ezin hobea izan da betidanik. Hastapenean aipatzen nuen adibide sorta hori eta hortik kanpo daudenak ekarri nahi izan ditugu, merezi zuelakoan, gurekin lortu duten *feed-back* ingurura zabaltzeko. Ozen esan ahal izateko: hauek dira argitaraturik aurkitu ditugun gure liburuak.

Hondamendien antologia

Baina, orain arteko guztia, noski, itzulpengintzaren alde polita da, beste gabe. Kulturen arteko zubi papera eta betiko

topiko ederrak. Baina, editore batek itzulpengintzari buruz hitz egin behar baldin badu, batez ere zailtasunei buruz hitz egin behar du. Izan ere, itzultzea garestia da, zaila da, nekeza da. Sarri irakurri izan ditut orriotan itzultzaileen neke eta poz txikiak, eta zentzuzkoak jo ditut guztiak. Pentsatzen dut orriotara deitu banauzue, nire pozak eta nekeak ekartzeko izan dela.

Txalpartak itzultzen du eta itzultzen jarraituko du, horretarako bokazioa duela, sinesmen irmoa. Mugan bizi garenez, inork baino arrazoi gehiago daukagulako mugak ezabatzeko. Ez esperientzia gozoa delako. Izan ere, mota guztietako esperientzia txarrak izan ditugu: pasarteak faltan zituzten liburuak argitaratu ditugu, itzultzaileekin haserretu gara, itzultzaileak gurekin haserretu dira, alfabeto ezezagunen karaktereak aldrebes erreproduzitu ditugu, diru kontuengatik diskutitu dugu, epe kontuengatik muturtu, maula egin digute, argitaratu ez diren eta argitaratuko ez diren itzulpenak daude Txalpartako apaletan... Hondamendien antologia txiki bat badugu.

Galdategietatik atera eta liburugintzan esperientzia militante soila zuten editore hasiberrientzat zabala eta arrotza zen itzulpenaren itsasoa eta, urteetan, aurrez egindako itzulpenez gain, “badut lagun bat”, “nik badakit” eta mota horretako hainbat bihotz oneko eskaintza egon ziren eta egon badaude. Penaz eta lotsaz aitortu behar dugu Txalpartaren katalogoan itzulpen kaxkarrak egon badaudela; itzultzaile amateur eta profesionalenak. Baina baita erakusteko moduko maisulanak ere; itzultzaile amateur eta profesionalenak. Oraindik ere hanka

sartzen jarraitzen dugun arren, urteekin ikasi dugu laginak eskatzen, itzulpen osoak baloratzen, iritziak eskatzen... guztiontzat desatseginak izaten diren ezustekoak saihesten, hitz batean.

Alderik amateurrena, segur asko, diruarena izango da oraindik. Esan bezala, edizio munduan itzulpengintza bokazioa da, ustea, politika, printzipioa, jarrera. Gure inguruan, behintzat, oso gutxitan izan daiteke beste ezer. Hori dela eta, editore gehienok ordaintzaile eskasak gara. Itzulpenak argitaratzeko ohikoena den bideetako bat plazer –eta ego– hutsarena da. “Egile hau maite dut, itzuliko banu, argitaratuko zenukete?”. “Liburu hau itzuli dut, argitaratuko duzue?”. Hein batean, beraz, itzultzaileena da gure katalogoaren aberastasuna, sekula behar bezainbeste eskertzen ez duguna.

Normalean, itzultzaileak egin duen lanarentzat bidezko ez den tarifa bat adostu, eta liburua argitaratuta ikustearen pozarekin ordaindu, horixe egin izan dugu. Aurretik egindako aitortpenen ildotik, penaz eta lotsaz aitortu behar dugu Txalapartaren katalogoan gaizki eta oso gaizki ordaindutako itzulpenak badaudela.

Zoritzarrez, itzultzaileak administrazioaren arauak edo makina-erremintaren argibideak itzuli behar ditu bizitzeko eta gustuko dituen literatura-lanak gozatzeko. Zorionez, batzuetan, nahi baino gutxiagotan, aurkitu izan ditugu horrelakoak gainditzeko bideak. Gehienetan, diru laguntzen bidez, ezinbestekoak baitira horiek itzulpengintzarako. Besteetan, aliantzen bidez eta, batez ere, gure aliantza nagusiaren bidez, gure harpi-

dedun finko eta leialen bidez. Gure herrian tamainagatik eta gure ohitura politiko eta kultural penagarriagatik, ezinezkoak dira horrelako aliantzak baina, mugaren beste aldean, Txalapartak sortu edo aurkitu ditu horretarako espazioa eta bidaideak. Txalapartarekin batera Editores Independientes taldea osatzen duten Mexikoko ERA, Txileko LOM eta Uruguako TRILCE argitaletxeekin egindako elkarlanak itzulpen ugari egiteko aukera eman digu. Horrez gain, Editores Independientesen bidez Txalaparta sortzaile duen Alliance Internationale des Éditeurs Indépendants taldeak ere mota horretako elkarlanak ditu helburu. Ezinezkoa ez esateagatik oso-oso zaila delako itzulpengintzaren kostu guztiak argitaletxe baten esku uztea. Itzultzaileek, argitaletxeek, administrazio eta erakundeek egin behar diete aurre horiei guztiei, itzulpengintzan sinesmen irmoa badute, behintzat.

Mugarik ez

Nazioarteko erakundeek –UNESCOk, batez ere–, estatuek eta tokian tokiko administrazioek sarri zubi lan horren aldeko sutsu direla erakutsi dute baina, nahi baino sarriago, ezer gutxi egin dute horren alde, eta beren burua aurretik planteatzen genuen kate horretatik atera dute. Berriz sartzeko, behetik gorako eskaria egon behar du, irakurleetatik hasi eta sektoreko elkarteek artikulatua. Artikulu hasieran esan bezala, ezinbestekoa bezain ederra delako muga etengabe pasatzea edo, hobe, muga ezabatzea.

En la frontera

En este artículo Mikel Soto habla de la traducción de textos literarios desde la perspectiva de editor. En la primera parte del artículo, hace una breve recapitulación de la traducción en su editorial, Txalaparta, repasando autores y títulos de relevancia en su catálogo. Analiza más pormenorizadamente la traducción al euskera, la importancia de las traducciones en la conformación de un catálogo editorial y desarrolla el placer de la traducción de textos en la labor editorial.

En la segunda parte, enumera los problemas derivados de la traducción, tales como la falta de fidelidad con el original de ciertas traducciones, la dificultad para cotejar textos, las tarifas, el proceso de profesionalización etc. Analiza diversas formulas para la superación de los mencionados problemas comunes que tiene la traducción y, finalmente, destaca la importancia de la traducción como puente entre culturas y la necesidad del apoyo a la misma por parte de instituciones y asociaciones.

In the border area

In this article Mikel Soto speaks about the translation of literary texts from the point of view of the editor. The first part of the article carries out a brief recap of translation in his publishing house, Txalaparta, reviewing the important authors and titles present in the company's catalogue. He analyses in depth the translation in to Basque language, the importance of translations in the conformation of publishing catalogue and he describes the pleasure of translating texts within his publishing tasks.

In the second part he lists the problems caused by translation, such as the lack of accuracy of certain translations regarding the original texts, the difficulty to compare texts, rates, the process of professionalism, etc. He analyses the different options to overcome the abovementioned common problems of translation and, finally, he points out the importance of translation as a bridge between cultures and the need for institutions and associations to support the latter.

À la frontière

Dans cet article, Mikel Soto aborde la traduction de textes littéraires du point de vue de l'éditeur. Dans la première partie de l'article, il synthétise brièvement la traduction dans sa maison d'édition, Txalaparta, mentionnant les auteurs et les titres importants de son catalogue. Il analyse ensuite en détail la traduction basque et l'importance des traductions dans la formation d'un catalogue éditorial, puis il développe le plaisir de la traduction de textes dans le travail éditorial.

Dans la seconde partie, il énumère les problèmes dérivés de la traduction, tels que le manque de fidélité à l'original de certaines traductions, la difficulté de confronter les textes, les tarifs, le processus de professionnalisation, etc. Il analyse différentes formules pour surmonter les problèmes communs mentionnés de la traduction, et souligne enfin l'importance de la traduction comme pont interculturel et la nécessité de son soutien institutionnel et associatif.